

ALKATE JAUNARI

Miren Albistur Garmendia andreak, Talde Popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoan indarrean dagoen 98. artikulua babesean, Udalbatzan azter dadin aurkeztu du gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko honako **MOZIO ARRUNT** hau.

JUSTIFIKAZIOA

Esan dezakegu udal honek beti erakutsi duela interesa eta beti ahalegindu dela gizarte larrialdietarako laguntzek (GLL) Donostian dauden eskaera guztiak estal ditzaten.

Horretarako diru kopurua behin eta berriz eskasa izan da Eusko Jaurlaritzaren aldetik, berori izanik administrazio eskuduna udalerriak behar adinako baliabide ekonomikoez hornitzeko, laguntza horien eskatzaileen beharrei erantzutearren. Horrenbestez, udal honek bete behar izan du eskasia hori.

Gobernu Taldeak aurkeztutako aurrekontu proiektuak 1.469,432.10 €-ko kontu sail bat barne hartzen du. Hori da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak transferitzen duen zenbatekoa laguntza horien ordainketari aurre egiteko. Dena dela, bai Ogasun Batzordean, bai Ogasun ordezkariaren, bai alkatearen, baita ere Gizarte Ekintzako ordezkariaren bertaratzeetan, onartu da kontu sail hori ez dela behar adinako izango gizarte larrialdietarako laguntzen eskatzaileei erantzun ahal izateko eta Eusko Jaurlaritzari eskatuko diotela kontu sail hori areagotu dezan, behar beste baliabide ekonomiko eskuragarri eduki ahal izateko.

Aurrekontu proiektuari buruzko Ogasun ordezkariaren bertaratzean; zehazki, milioi erdi euro gainditzen dituen "Kontingentzia Funtserako" kontu sailaren inguruan galdetu zitzaionean, onartu zuen kontu sail horren zati bat gizarte larrialdietarako laguntzekin lotutako gizarte ekintzaren kapitulari dagokion kontu saila osatzera zuzenduko zela.

Ez da lehen aldia udalbatza honek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diona udalak behar adinako baliabide ekonomikoez horni ditzala gizarte larrialdietarako laguntza horien eskatzaileei erantzun ahal izateko. Baina, gure ustez, arazo hori zuzendu beharra dago eta behartuta gaude administrazio eskudunari eskaera hori berriz ere egitera.

Hori dela eta, sinatzen duen bozeramaileak honako **MOZIO ARRUNT** hau aurkeztu du:

LEHENIK: Donostiako Udaltzarak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio onar ditzala aurrekontu zuzkidura gehiago, gizarte larrialdietarako laguntza horien eskatzaileen beharrei aurre egin ahal izateko udalerriek behar besteko baliabideak eskuragarri izan ditzaten.

BIGARREN: Donostiako Udaltzarak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aldatu eta eguneratu ditzala udalak behar adinako baliabide ekonomikoez hornitzeko irizpideak, udal bakoitzaren benetako egoera kontuan izanda.

Donostian, 2015eko abenduaren 4an

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea